

**JESU KRISTOREN EBANJELIOA:
MATEO, MARKOS, LUKAS, JOAN.
BIZKAIERAZ (2014)**

1. Biblia gaur?

Europako sekularizazioan bizi garenontzat talkagarri gertatzen da gure arteko inor BIBLIAz berba egiten barruntatzea. Behar bada, eurozentrismok uste izaten dugulako, Tour Eiffel mundu guztitik ikusten dela.

Ordea, mundua Europa baino lurralde zabalagoa da. Gutariko edonor Amerikako Estatu Batuetara badoa, behingoa harrituko da mesanotxeko tiraderan liburu pare aurkitzean: bata, “Holy Bible” placed by The Gideons, eta bestea, “The teaching of Buddha” ingelesez eta japonieraz. Azalpen teorikorik barik ulertuko du gizarterik modernoaren habian bertan Biblia erakustea ondo ikusia dela.

Bestalde, G. K. Chesterton-ek hauxe perpausa hau dakarkigu *Ortodoxia* liburuan: “Judeguen historia da antzinako dokumentu bakarra ia ingeles guztiek ezagutzen dutena”. Zer adierazteko mintzatzen zaigu termino horietan? Bada, iragartzera emateko ingelesek amankomunean dutela kulturako sail handi hori, hain zuzen, Mendebalde osoko umibertso kulturalari dagokiona.

Bazatoz, oster, gure Euskal Herrira, lau pausu bidean ohartzen zara nola den garandu heziketa judu-kristaua, luza-roan geure izan duguna. Hala ere, Adan eta Eva edo Moises edo Sansonen gaineko “barriketak”, edozein taberna bazterre-

tan entzun ahalko ditugu; zoritxarrez, zer esanahi duten jakin barik, seguru asko.

Nahiz eta gure arteko askok Jainkoagan sinetsi ez, inguruan eta aldamenean topatzen dituzte San Migelak, Santutxuak, San Pedroak eta gainerako izen kristauak. Hori hola, federik ezak jakin eza ekarri digunean, zer jokabide hartu ingelesek amankomunean duten Bibliako kultura eskuratzeko?

Jo dezagun juduen historiak bost axola digula. Hala balitz ere, nola da betetzen, ordezkutzen, geure giroan eta inguruan dugun tradizio horretako hamaikatxo izen, sinbolo eta jokabide? Zeren kulturako adierazlearekin geratu gara, adierazia galdurik; izena jakinik, baina izana aldendurik. Zezezan esateko, euskararik ez dakien erdaldunaren egoera lako-
xe da gure artekoa: Martintxone Mungiako baserriko kartela ikusirik, letrak irakurtzen ditu, baina ez daki Martin-txo-nek zer esan gura duen. Biblia kontuetan, David eta Goliat entzun arren, ez daki zein den izenon azpian datzan anekdota, jatorria edo irakatsia.

Edonola ere, erlijioari buruzko solasaldietan, usteak eta errealitatea sendo josi gabe mintzatzen gara zenbaitetan, ezen datuetara joez gero, koadriletan darabilgun diskurtsoa eta praktikakoa ez baitatuz bat. Hara baieztapen horren alderako zergatietariko bat. Lontzo Zugazagak -ohiko doitasunez- jasotako datuen arabera, 50.000 Biblia edo Itun Berri zabaldu dira azken hogeitortan euskaldunon artean. Aiko hemen urtez urtekoak:

A.- ELIZEN ARTEKO BIBLIA (nagusia):

1994an 14.600 ale.

2004an (eraberritua) 7.500 ale.

EABiblia (formato txikerra, plastikozko tapaduna):

1998an 4.500 ale.

2001ean 3.000 ale

2008an (eraberritua gehi CDa) 3.489 ale.

2011n 3.595 ale.

2014an 3.000 ale eskatuak.

EAB guztira: 39.684 ale.

B.- ITUN BERRIA (grekoa-latina-euskara)

1995ean 500 ale.

ITUN BERRIA:

1997an 5.200 ale.

2006an (eraberritua) 2.016 ale.

2009an 2.001 ale.

2014an 1.500 ale eskatuak.

GUZTIRA: 10.717 ale.

BATERA EAB ETA ITUN BERRIA: 50.401 ale. Beti ere, 1960ko hamarkadan-eta argitaraturikoen ale kopurua alde batera lagata.

2. Nork behar du bibliarik?

Asko dira bizkaierazko tradizioari jarraipena emango dion *Itun Berria* eskuratu nahi dutenak. Horren lekuko ditugu Bizkaiko euskal eskualdeetako apaiz eta laikoak, zeintzuek eskaera heldu eragin duten Bilboko Gotzaindegira, Gotzainari eta gotzain kontseiluari, adieraziz: “Ebanjelioak behar doguz bizkaiera gaurkotuan”.

Horrez gain, bada interes handiko artikulua bat *erabili.eus*-en, 2011-09-07n, -hartan ere Bittor Hidalgo euskaltzale ikerlariarena- zeinetan itauntzen duen:

Harrituta nago nola ez den bizkaierazko, edo gaur egun diogun ‘mendebalerazko’-edo, bertsiorik argitaratu -Bibliaz dibardu-. Ez naiz orain ni hasiko Elizei esaten zein propa-

ganda estrategia erabili behar duten, baina harrigarri egiten zait zelan ia euskaldunon erdiek berba egiten dogun mendebalerazkotik hurrago den Biblia bertsiorik ez den gertatu, eta aldiz zubererazko biztunentzako, hauek 5.000ra iristen ez direnean, edo lapurterazkoa-edo gaur egungo nafar-lapurtera biztunak mendebalekoak baino nabikoa gutxiago direnean esaterako.

Nik nire lanean gustura erabiliko nuke bizkaierazko/mendebalerazko bertsioa, eta hala galdetu nahi nizuen dagokizuenoi, ez ote duzuen halako asmorik. Eta baldin baduzue, noizko-edo. Eta ez baldin baduzue, zergatik-eta pena hori.

3. Lau ebanjelioen barrua

3.1. Greziera

Oinarrizko testu grekoa euskara batutik bizkaierara egokitzeari duen zentzua nahiz balioa ulertu nahi badugu, galdera honi beharko diogu erantzun: zertan datza lau ebanjelioak bizkaierari tolestearen giltza? Erantzun ezinbestekoa hurrengo hau duzu: giltza jatorrizko hizkuntzan dago! Izan ere, berba jakin bat ezin ekar daiteke euskara batutik bizkaierara, jatorrizko hizkuntzetan eta jakintza biblikoan adituak tartean izan ezik.

Honela jarri dugu liburuaren sarreran: Horretarako, auke-ra-aukerako baliabidea izan dugu eskura: *Itun Berria grekoa-latina-euskara* liburua (1995); EABko itzultzaileoi Juan Luis Goikoetxeak eskaturik hiru hizkuntzotan argitaratu genuena. Horrez gain, Zerwick-en *Analysis philologica novi testamenti graeci* izan dugu lagun testu grekoaren benetako esanahia eskuratzeko. Atseginez jardun du Lontzo Zugazagak oinarrizko testu grekoa aztertzen, euskarazko ordain egokia emateko.

Jar ditzagun adibide pare bat: Lukas 7,30: *fariseuek eta lege-maisuek, ordea, haren bataioa baztertuz, zapuztu egin zuten Jainkoak beraientzat zuen asmoa*. Zapuztu zer den bizkaieraz jartzeko –testuan polisemikoa denez- zapuztuk gutxienez bost adiera badituelarik, jatorrizko grekora iritsi behar da. Han, ἠθέτησαν dator. Guk grekora jo ondoren itzuli dugu: *fariseuek eta lege-maisuek, ostera, haren bateoa baztertuz, alperrik galdu eben Jainkoak eurentzat eban asmoa*.

Bigarren adibidea, agian, argigarriago gerta liteke: Mt 23,25:

Euskara batuan: *Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, barrutik lapurretaz eta gutiziaz beterik dauden bitartean*. Bizkaieraz: *Ai zuok, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, barrutik lapurretaz eta grina txarrez beterik dagozan bitartean*.

Gutizia berbak ADOREZ hiztegietako sinonimoetan hamabi baliokide ditu. Zein hartu jatorrizko grezierara jo ezik? Beti ere, ahaztu gabe Euskaltzaindiko Orotariko Euskal Hiztegian *Empleado especialmente en los dialectos centrales* agertzen dela.

3.2. Bizkaieraren aberastasuna jaso

Bizkaierak bikaintasun handia erakusten du lexiko alo- rrean -eta morfologian- idatzi zuen JAKIN 92an Gotzon Gara- tek, 1996an. Guk Gotzonen ikerlaneko ordenari jarraiturik erakutsiko dugu Jesu Kristoren Ebanjelioko edukiaren balioa.

ITXAROTEN NAGO; ZAIN NAGO erabiltzen ditugu; ez es- peroan nago. Lukas 8,40: *Jesus biburtu zanean, jentek ondo- torria egin eutson, danak egozan hari itxaroten-eta*.

JARAMON: *Ez egin kasurik baino Ez jaramon erabiltzen da*: Lukas: 18,4: *Luzaroan epaileak ez eutson jaramonik egin gura izan, baina azkenean bere barruan esan eban*.

Gainera, bizkaieraz egiten diren bereizkuntza hauei ere eutsi egin diegu:

NEBA: Neskak mutilari *neba* esaten diona, badakigu: Jn: 11,19: *Eta judegu asko etorri zan Marta eta Mariagana, ne-beagaitik doluminak emotera.*

GORPUTZA/GORPUA: Gorputza eta gorpua bereizi egiten ditu bizkaierak -gaur egun euskara batuan ere bai, oro har:- Lukas 23, 52: *Josek, beraz, Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu eutson.*

OKELA ETA HARAGIA desberdintzeko erarik, ordea, ez dugu izan.

BERE eta BERA(RE)N bereizi egiten ditugu:

BERE konplemento zuzena denean erabiltzen dugu; BERA(RE)N genitibo denean: Lukas 1,32: *eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emongo deutso.*

NOR eta ZEIN -mugaz bestaldean bezala- ondo bereizten dira Ebanjeliootan: Lukas 7,31: *Norekin konparatuko neuke gizaldi honetako jentea? Noren antzekoa da?*

BATEN eta BATEAN diferenteak dira bizkaieraz: “Behin baten...”; “Askok egiten deutso San Antoniori, egun batean joan eta bestean etorri”. Lukas 9,4: *Etxe baten sartzen zarienean, gelditu bertan herri haretatik urten arte.*

MORFOLOGIA: Aipatuko ditugun formetan euskara batua erromanizatuago agertu ohi da.

A ITSASIA: bizkaierak ederto jagoten du -a organikoa: *gauza, arnasa, eleiza*, eta gu halaxe gordetzen ahalegindu gara. (Gai hau, dena den, atal ugariko berakatzaz denez, hurrengoan beharko dugu sakondu). Oraingoan dioguna da: Bizkaiera bera

aintzat hartzean, haren bilakaera azkarra eta modernotasuna islatu gura izan dugula Ebanjelioetan. Nahiz eta bizkaiera estandar bakarrik ez dagoen, gehienbat, gaur egunean neurri handiko adostasuna lortu duen bizkaiera eredura jo dugu. Hala ere, A itsatsian -oro har- euskara batuko formak erabili izan ditugu, zeren euskara batuak euskalkiari eragin egiten baitio. Hala ere, berbea-eta aurkituko ahalko ditu irakurleak. Jn 4,41: *Jesusen berbea entzutean, askoz gehiagok sinistu eben.*

-RIK GEHI SUPERLATIBOari ere beti eutsi izan diogu: Lukas 9,46: *Eztabaida sortu zan ikasleen artean, nor ete zan euretarik handiena.*

Zenbait bereizketa, gainerako euskalkietan galduz joan direnak egoki baliatzen ditu bizkaierak Garateren ustez:

ERREFLEXIBOAK: neure, geure: Lukas 6,42: *Zelan esan deiokezu senideari: "Adiskide, itzidazu begian dozun samarra atarutzen", zuk zeurean dozun habea ikusten ez dozula?*

INTENTSIBOAK: Lukas 7,8: *Neuk be, neu inoren menpean egon arren, soldaduak ditut neure menpean.* Leizarragak ere, bestalde, bizkaieraren bideak erabili izan zituen: *Egyptetik deithu ukan dut neure semea. (Mateo.2.15).*

Gotzonek diosku aipaturiko artikulua berberean: *Gaur eguneko idazlerik gehienek ez dituzte bereizten erreflexiboak eta intentsiboak. Elizak ere liturjian ez ditu aintzat hartzen Arrasaten, Oñatin, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Elgoibarren, Eibarren-eta darabilten bereizketa jator hori.*

ERAKUSLEAK. DEITIKOAK:

Hurbiltasuna edo urruntasuna adierazteko erakusle ezberdinak erabiltzen ditu bizkaierak. Hurbiltasuna adierazteko lehengo euskaraz eta bizkaieraz o morfema erabiltzen da. Urruntasuna adierazteko, berriz, *a*.

BERTON/BERTAN: Lukas 10,11: *Oinetara batu jakun zuen herriko hautsa be berton astintzen deutsuegu.*

ADITZA

PERPAUSA KONPLETIBO MOTA BAKARRERA EZ GARA MUGATZEN: -NA/-LA:

Lukas 19,22: *Babekian gizon gogorra nazana, emon bakoa eskatzen eta erein bakoa batzen dodana.*

GALDEGAIA

Bizkaierak ondo jagoten du galdegaiaren indarra, sarri, kalerera jalgi den euskara batuan bazter geratzen dena.

Lukas 19,26: *Daukanari emon egingo jako.*

ADITZ TRINKOAK

Bizkaieraz oraindik ere badira beste euskalkietan jokutzen ez diren aditz trinkoak:

JARDUN: Lukas 24,16: *Zertaz dibarduzue berbetan bidean alkarrekin?*

IRITZI: Lukas 6,14: *Simon –boni Pedro izena ezarri eutsen– eta bonen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, 15 Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote eritxona–, 16 Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zana.*

SUSTANTIBO ITXURA DUTEN ANTZINATEKO MOLDE BIKAINAK :

-KERA MOLDEA:

Lukas 18,34: *Hareek, ostera, ez eben ezertxo be ulertu; haren berbakera ilun egiten jaken eta ez ekien zer esan gura eutsen.*

-TAN MOLDEA -TZEN MOLDEAREN ORDEZ -tan (mugatu gabekoen bukaera) duten moldeak, beste euskalkietako -tzen-en ordeztan. Pentsetan dot lakoak.

Molde hau saihestu egin dugu -agian oker- euskara batua-ren mesedetan.

KONJUNTZIOAK

Euskalki guztien artetik bizkaierak du konjuntzioak perpausaren azkenean ipintzeko senik biziena, euskarari dago-kion bezala. Indoeuropar hizkuntzarik gehientsuenek konjuntzioak aurrean ipintzen dituzte.

Mateo 8,4: *Kontuz gero!*

ERREPIKATZEA

Errepikatzearen bidez, esamolde politak sortzen ditu bizkaierak.

Aditza aldi diferenteetan errepikatuz: *egon dago* bezalakoak.

Substantiboa errepikatuz: *lekuan lekuan*.

PERPAUSA AZKARGAK: ADITZA AURRERATU.

Horrez gain, perpausa *azkargak* arintzeko, ze erlazio hizkia -Euskaltzaindiak *Lgart.*, *lagunartekoa* dakarrena- guk era garatuan erabili izan dugu. Azken batean, euskara batuko ere badiren bizkaierako aberastasunak sistematikoki tartekatu ditugu eta bizkaiera euskara estandarretik ahal denik hurbilen jagon dugu.

Era honetara:

Mt 21,3: Jesusek erantzun:

Benetan dinotsuet: Zalantza bako sinismena badozue, ez dozue ikondoarena bakarrik egingo; ezpada ze esaten badeutsozue mendi boni «Kendu hadi hortik eta amildu itsasora», halantxe gertatuko da.

Ez beste honetara:

Mt 21,3: Jesusek erantzun:

Benetan diotsuet: Zalantza gabeko sinesmena baldin baduzue, ez duzue pikondoarena bakarrik egingo; baizik eta «Ken hadi hortik eta amildu itsasora» mendi boni esaten badiozue, halaxe gertatuko da.

4. Jaime Kerexeta, Karmelo Etxenagusia eta Lino Akesolo

Ez dira kontsultarako erabili ohi ditugun autore bakarrak, baina bai bizkaierarako ezinbestekoak. Hartan ere, bizkaierako aberastasunak baztertu barik jagoteko, zeren edozein euskaltzalek baitaki euskara batuko testurik gehienetatik datorren moldea, forma batzuetan mehattuta etortzen dena. Zer bermatzea lortzen dugu idazleokin, alegia, Kerexeta, Etxenagusia -Mikel Zarate- eta Akesolorekin? Tradizioaren bermea. Esate baterako, Joanek 20,9an honela dakar: *Izan be, ordura artean ez eben ikasleek ulertu Liburu Santuak dinoana, Jesusek hilen artetik biztu behar ebala*. EABk, ostera, *ordura arte* dio. Eta guk aipatuongana jo ondoren, *ordura artean* aukeratu dugu ze, gure euskarari *gero artean* erabili izan da. Berez, Jaime, Karmelo, Lino edo Mikel Zarateren eliz testuak gureak baino askeagoak gerta zitezkeen, ezen guk artekoen oinatze-tatik ibiliz, eta Elizen Arteko Bibliari hurbiletik jarraiturik muga finkatuetan jokatu behar baitugu..

Halandaze, lau ebanjelioetako testua josterakoan, eredu izan dugu aurretiko usadioa, elizako idatzien tradizioa dakarrena. Kontuan izan dugu Kerexetaren *Euskal Biblia* (1976) eta, aparteko eran, Lino Akesolo, Karmelo Etxenagusia eta

Mikel Zarateren gidaritza pean landutako testuak eta *Mezatarako Irakurgai-liburuak*.

Ezin ahaztuko ditugu, bestalde, gure artean haiekin urteetan lankide izandakoak eta jasotako ondarea arduraz zain dardin arduratzen direnak. Ezta, Marcel Etchehandyk lapurtar-baxenabartarrerat egokitutako Elizen Arteko Biblia, zein etengabe kontsultatu izan dugun; ezta Joanes Leizarragaren Testamentu Berria, berba teknikoetan-eta zelan jokatu erakutsi izan diguna; kasurako, Lukas 22,65: *Jesus sanedrinaren aurrean eta ez Jesus judu-biltzarraren aurrean erabakitzerakoan*.

AMAIERA

Lontzo Zugazagak eta biok sarreran diogunez, Euskaltzaindiari jarraitu gatzaizkio hizkuntzaren alderdi testualean, morfosintaktikoan, lexikalean nahiz ortografikoan. Bizkaierako, hiztun euskaldunaren ulermena, eliz testuetako tradizioa eta gaur eguneko bizkaiera idatziko jokabideak hartu ditugu kontuan.

Une oro izan dugu gogoan, zelan euskalkia definizioz zerbaiten euskalki den, hau da, euskalkia heteronomia dela, eta, hala ere, bere izaera duela.

Behin ere ez ditugu ahaztu eliztarrak eta hiztun euskaldunak; ahalegin handia egin dugu - ulergarritasuna jagonik-irakurtzean ez eze entzun ahala ere erraz uler dezaten.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta